

Nafarroako Arartekoak Patxi Zamora lanetik kaleratu izana zigor politikoa dela adierazten duen kexa onartu du eta Madrilera bidaliko du.

Kontuz elkartearen eledunak bilera izan du Javier Eneriz Nafarroako Arartekoarekin. Bertan, Guardia Zibilaren argudiorik gabeko erabaki batek bere lana egiten jarraitzen ez diola uzten azaldu du Zamorak.

Zamora Arartekoa eta Arartekoaren idazkariare bildu da ordu erdiz eta aferaren ezaugarri juridikoak aztertu dituzte. Análisi horren ondorioz, Kontuzen eledunaren kexa tramitera onartu dute.

Barne Ministeritzarekin lotura duenez, kexa honen tramitazioarekin aurrera egiteko Madrigo Herriaren Defendatzaileari bidaliko zaio.

Helerazi duten dokumentazioan aireportuetako nortasun agiria ukatzearen kontra jarri duten salaketa erantsi dute. Konstituzio-eskubideen kontrako erabakia dela agertzen da bertan eta kaleratzea bertan behera gelditzea eskatzen da.

Kasuaren laburpena Madrilgo Herriaren Defendatzailearengana helduko da beraz. Dokumentazioan Nafarroako Kutzaren desagertzeari buruz Kontuzek egindako lanaren berri ematen da eta Patxi Zamora Nafarroan Gobernu berria bultzatu duten alderdiek antolaturiko zerrendan Senaturako hautagai izan zela jasotzen da ere.

«Oso interesgarria izan da. Jarrera ulergarria izan dute eta aldi berean harriduraz hartu dute kasua. Egin dudana lan politikoa zigortzeko mendeku honi aurre egiteko gomendioak eman dizkirate ere», esan du Patxi Zamorak,

Arartekoaren atea ez da Zamorak jo duen lehena. Kasua dagoeneko epaitegietan dago eta lehen pausuak eman dira ere alor horretan.

El defensor del Pueblo en Navarra admite la queja de Patxi Zamora sobre su despido como represalia política y la remite a Madrid.

El portavoz de la Asociación Kontuz ha mantenido una reunión con el Defensor del Pueblo en Navarra, Javier Enériz, para ponerle al corriente de la decisión arbitraria de un mando de la Guardia Civil de retirarle un permiso que le era necesario para desempeñar su trabajo como auxiliar de vuelo.

La reunión de Patxi Zamora con el Defensor y el Secretario del Defensor se prolongó en torno a una hora y media. Y en ese encuentro, se abordaron en profundidad las circunstancias jurídicas del caso. Fruto de ese análisis, la reivindicación del portavoz de Kontuz fue admitida a trámite.

La tramitación de esta queja, al estar relacionada con el Ministerio del Interior, se realizará mediante la remisión del contenido de la misma al Defensor del Pueblo en Madrid.

El documento incluye la demanda de incoar las investigaciones pertinentes para el esclarecimiento de los motivos que están detrás de la retirada de la tarjeta de identificación aeroportuaria, determinante para un despido que vulnera los derechos constitucionales. Asimismo, también se recomienda la anulación de tales actuaciones.

El resumen del caso que llegará al Defensor del Pueblo en Madrid incluye una explicación de la labor realizada por Kontuz sobre la desaparición de Caja Navarra y, además de ello, señala que Zamora formó parte de una coalición al Senado en la que tomaron parte todos los partidos que trajeron un Gobierno de cambio a Nafarroa.

Patxi Zamora ha descrito la reunión como: «Muy interesante. La actitud ha sido de comprensión máxima y de incredulidad hacia el caso. Me han orientado en cual es la mejor vía para seguir denunciando esta vendetta por todo el trabajo público que he realizado».

La vía del Defensor del Pueblo no es la única a la que se ha recurrido, puesto que el caso ya está en los tribunales y se han realizado las primeras diligencias cara al esclarecimiento de lo sucedido.